


Ez da zapalkuntza?

Orduan, asimilazioa



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

PAULA ESTÉVEZ

Hezkidezarekin lotutako proiektuak koordinatzeko lankideekiko bilera batean, mutiko batek ikaskide neska bati irain matxista bota diolako gertakaria kontatu zuen irakasle batek, zalantza sortu zitzaiolako egoki jokatu ote zuen, eta gure artean hausnarketa interesgarria sortu zuen.

Irakasleak kontatu zuen diskurtso feminista irmoa erabiliz egin ziola aurre ikasleari, horrelakorik onartzen eta onartuko ez zuela tinko -baina maitasunez- adieraziz, eta zuzen jokatu ote zuen kezka duela orain, geroztik ikasleari ez diolako berak horrelako jokabiderik antzeman, baina badakiela ez dela benetakoa ikaslearen jarrera aldaketa, bere aurrean baizik ez omen baitio horrela jokatzeari utzi, kontatu diotenez. Ikaslearengandik jokabide horiek erauztea baino gehiago, lortu zuena ez ote zen bere begietatik kanpora bidaltze hutsa izan, ez ote dion horrela bere balizko esku hartze bati atea itxi. Ez ote zen hobeki hain zorrozki aritu ez balitz.

Nik argi dut kontua. Egiturazkoak diren zapalkuntzen ondoriozko adierazgarriekin ez da epeltasunik erakutsi behar, marra gorriak direla jakin beharra dutelako. Muga bat garbi ezartzeak ez du, gainera,

gaiaren bestelako lanketa hezigarrien aukera eragozten, baina zentzua izango badu, eta koherenteak izango bagara, zorrotz eta irmo ezarri beharra dago muga. Dena den, gogoan izan behar dugu hezitzaile moduan dugun eragin-gaitasuna ere mugatua dela, sarri zapuzten baikara gure lanak ematen duen fruitu eskasarekin.

Kontua da adierazi nuela ikasleren batek erdaraz egiten zidanean nik ere halaxe jokatu ohi dudala, gustua egiteko batere asmorik gabe, niri euskaraz egiteko exijituz, erdaraz ez ezik harrokeriaz, edo euskararen kontrako mespretxuz egiten baitute batzuek, batzuetan. Ondorengo komentario batzuek, orduan, zer pentsatua eman zidaten. *Ezin direla bi kontuak konparatu, hizkuntzarena ez dela gisa berekoa, hor ez dagoela indarkeriarik, eta bla bla bla.* Betikoa.

Feminismoak ideologia oso bat garatu du, emakumeontzako gida bat eskaintzen duena arazoa izendatzeko, ulertzeko, kokatzeko, aurre egiten jakiteko, zapalkuntza zipriztinik txikienak ere identifikatzen jakiteko, eta ahalduntzeko. Eta eskertu egiten da ideologia batek ez duelako berez askapena ekartzen, baina emantzipazio psikologikoaren lanean ezinbesteko abiapuntua eta babesa baita.

Zer gertatzen da, ordea, euskal zapalduokin? Pairatzen dugun gatazkari buruzko ideologia hegemonikoak kanpoan utzi du zapalkuntzaren kontaketa, horrek dakartzan ondorioekin. Hizkuntzaren auzian ikusten da nabarmenen, euskaldunon bereizgarri nagusia delako, eta herriaren pultsuaren neurria ere ematen digulako, hortaz. Bada, egiten den diagnostiko okerrean, eta proposatzen zaizkion soluzio inozoetan, kezkatzekoa da oso herri honen inboluzio ideologiko larria.

Erdara ez da jada zapalkuntzaren sintoma gisa hartzen, denok dakigulako erdaraz (zergatik ote?) eta hizkuntzak beti onak direla dioen ideologiak *abduzitura*, hizkuntza batean etsaitasunik egon ez daitekeela sinestera iritsi garelako. Baina menderakuntzaren ordez hor kultur aniztasuna besterik ikusten ez duten horiek, nola azaltzen dute aniztasun hori Euskal Herriaren alde honetan hain espainol kolorekoa izatea, eta hain frantsesa bestean?

Zapalkuntza ez sentitzea jauzi kualitatiboa da asimilazio prozesuan, espainol(-tasun)a edo frantses(tasun)a geure egiten ari izanaren ondorioa, horrela, hain gozoki. Hain erraz lortzen utziko diegu? ●